

ar**o**a

ZUMAIA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA
LANTZEKO PROZESUA ETA DIAGNOSIA
2024

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

ahize *sek*
hizkuntza aholkularitza

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	3
2.- TESTUINGURUA	4
3.- PROZESUA	6
4.- DIAGNOSIA. Nondik gatoz?	12
4.1 Zenbat gara eta nolakoak gara Zumaian?	12
4.2. Zein doinu dauka gure ahotsak?	14
4.3. Oikiarren izaera eta doinuak	21
4.4. Beste ikerketa eta adierazle batzuk	23
4.5. Zein da herritarren iritzia?	30
5.- ONDORIO NAGUSIAK	39



1. SARRERA

Zumaiako Udalak, Ahize-AEKren laguntzarekin, Zumaiako 2024-2034 AROA euskararen plan estrategikoa diseinatu du hausnarketa prozesu baten bitartez, egungo egoeraren ebaluazioa osatu eta hurrengo arorako, alegia, hamar urterako, lan ildo nagusiak proposatuta. Bide horretatik, txosten honen helburua da:

ZUMAIAN EUSKARAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA OSATZEA

Zumaiako Udalak 2024-2034 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak irudikatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesua sustatu du. Aipatu prozesuak egungo euskararen egoera marraztu, eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak jarri nahi ditu.

Dokumentu honetan jaso nahi izan da egungo Zumaiaren argazkia; izan ere, azken urteotan Udalak euskararen arloan izan dituen helburuak aztertu eta baloratu dira partaidetza prozesu batean. Bide horretan ez da bakarrik aritu; herritarrekin eta herriko eragileekin elkarlanean egindako lanaren emaitza da hau. Beraz, gure eskerrik beroenak adierazi eta eman nahi dizkiegu hilabete hauetan, alde edo moldez, parte hartu duten eta bidelagun izan diren zumaiar eta eragile guztiei.




2. TESTUINGURUA

2009tik UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da Zumaia, eskualdeko herri gehienekin batera. Urola Kosta, gainera, Euskal Herriko bigarren eskualderik euskaldunena da. Zumaia UEMako kide den neurrian, giltzarria da euskararentzat, eroso bizi ahal izateko eremua eskaintzen duelako.

Zumaia Udalak 2004an onartu zuen herrian Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), 2005-2008 bitartekoa, eta hurrengo 2009-2013 epealdikoa izan zen. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren proposamenari jarraituta, izena aldatu eta 2014an Zumaia egokitutako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) 2014-2017 onartu eta garatu zuen Udalak; ondoren, indarrean egon zen 2018-2022 ekintza plana, eta haren luzapena 2024ra arte. Plan horien guztien barruan proiektu, jardura eta kanpaina ugari antolatu eta gauzatu dira, horietako asko beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Zumaia Udalak udalerriko euskara planaz gain, Udaleko erabilera plana onartua du (2023-2027), eta Urrezko BIKAIN ziurtagiria eskuratu zuen 2021ean. Erabilera planean beste diagnostiko bat egin zuen Udalak, KEMEN metodologia aintzat hartuta, eta 5 urteko epean lortzeko moduko helburuak jarri zituen. Horrekin batera, hizkuntza irizpide batzuk ere onartu zituen, esparru bakoitzerako moldatutakoak.

2024ko diagnostikoa





Horrekin batera, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa gero eta pisu handiagoa hartzen ari da udaletan, batez ere 179/2019 Dekretuan betebeharrak batzuk arautu zirenetik. Zumaiaiko Euskara Zerbitzuan trebatu dira gai horretan eta, UEMArekin elkarlanean, inpaktuaren ebaluazioak egiten ari dira hala dagokien proiektuetan: arau subsidiarioen aldaketetan, plan berezietan...2023ko abuztuan ELE ordenantza onartu zuen Zumaiaiko Udalak, eta horretan zehaztu zuen ELE batzordea nola osatuko zen, zer egingo zuen eta Oikiako proiektuei arreta berezia jarriko ziela, arnagunetzat hartuta.

Hiri Antolamenduko Plan orokorra (HAPO) lantzen ari da Zumaian azken urteotan, eta horretan garrantzi handia du hizkuntza inpaktuaren ebaluazioa ondo egiteak. 2024an egin zen HAPOri lotutako azterlana, ELE batzordeak 3 bileratan gaia aztertu eta gero. Lan nagusiak hauek izan ziren:

1. Plan orokorrak ekarriko lituzkeen aldaketak ezagutzea, alor guztietan, hizkuntzan izango lukeen eragina aurreikusteko.
2. Euskararen aldetik Zumaia nola zegoen ikustea, eragin horiei aurre egiteko gai ote den jakiteko.
3. Eraginaren intentsitatea neurtzea, ELE aplikazioaren bitartez.
4. Neurri aringarriak eta zuzentzaileak proposatzea, eragin negatiboak ahalik eta txikiak izan daitezen.

HAPO planean hizkuntzaren ikuspegitik bultzatu beharko liratekeen helburuak eta irizpideak zerrendatu zituen ELE batzordeak, eta azterlan osoa jasota dago hapo-zumaia.eus webgunean.

Udalaren beste plan batzuetan ere ardatz modura aintzat hartzen da euskara; esaterako, 2015-2025 plan estrategiko orokorrean jasota geratu zen, eta 2019ko turismo planean eta 2023ko merkataritza arloko diagnostikoan ere kontuan hartu zen. Ordenantzak lantzeko orduan ere aintzat hartzen dira hizkuntza irizpideak (terrazen ordenantzan, esaterako), eta etorri berriei harrera egiteko protokoloan ere puntu berezi moduan landuta dago.

Herriaren ezaugarriei dagokienez, azpimarratzekoa da herriko ikastetxeetan D eredua bakarrik eskaintzen dela, AEKK kudeatzen duen Igor euskaltegiak maila askotako ikastaroak ematen dituela, euskarazko toki hedabideak erreferentziazkoak direla (ZumaiaGUKA, lehen Baleike eta Hitza) eta Larraina euskara elkarrekin lan handia egiten duela, bereziki motibazio jarduerak antolatzen eta ikerketak egiten.

3. PROZESUA

Egitasmo honen helburua da:

ZUMAIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO 2024-2034 PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEA, ETA GAUZATU AHAL IZATEKO EGITURA ETA PROZEDURAK PROPOSATZEA.

Helburu zehatzak:

- Orain arte egindako ibilbidea aztertu eta gako eta palanka nagusiak identifikatu.
- Udalerriko eta eskualdeko datu soziolinguistikoak aztertu.
- Herritar eta eragileekin partaidetza prozesua antolatu eta dinamizatu.
- Partaidetza prozesutik ateratako ondorioak landu eta euskara plana diseinatzeko baliagarriak izan daitezen sistematizatu.
- Euskararen Plan Estrategikoa (AROA) 2024-2034 diseinatu eta Udalbatzak onartu.
- Edukiak eta formak landu.
- Prozesuaren komunikazio plana diseinatu, garatu eta ondorioak aurkeztu.

Zeharkako helburuak:

- Orain arte egindakoari garrantzia eman eta herrian egindako lanaren eragina ikusarazi.
- Euskararen aldeko babes soziala indartu.
- Herritarren eta Udalaren artean elkarlanerako guneak indartu.

Laburrean, ibilbide honi jarraitu zaio:

- **Egungo egoera ezagutzea:** euskararen erabileraren datu soziolinguistikoak aztertu eta landu dira, bai udalerrikoak, bai eskualdekoak eta bai herrialdekoak. Era berean, partaidetza prozesu baten bitartez, udalerriko eragile eta herritarren iritzia eta ekarpenak jaso dira.
- Ibilbidea aztertuta, **gako eta palanka nagusiak identifikatzea:** Zumaian, egun, euskararen normalizazioa bultzatzeko egin den bidea ezagututa (egitasmoak, jarduerak, dinamikak eta abar) indarguneak eta ahuleziak ezagutu dira, eta aurrera begirako palankak identifikatu dira.
- Jasotako informazio eta ondorioetatik abiatuta, **etorkizuneko lerro nagusiak** definitzeko hausnarketa prozesua garatu da: hausnarketa hori Udaleko ordezkari tekniko eta politikoei, diziplina eta askotariko arloetako herriko eragileekin eta parte hartu nahi izan duten herritarrekin batera egin da

Proiektu honek, erreferentzia gisa, kontuan izan du udal politika eta jardura arautzen duen lege markoa:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera soziala sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskararen Erabilera Arautzekoan, dauka bere hastapeneko erreferentzia. Herri aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.



- 2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailaren 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.
- Bestetik, aintzat hartu beharrekoa da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa. Hauxe dio 7.2. artikuluan: «Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz». Horrez gain, espresuki jasotzen du hizkuntza-politikako planak egiteko udal eskumena 7.3. artikuluan: «Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz».
- Era berean, kontuan hartu beharrekoa da 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Azkenik, 19/2024 dekretua ere bete behar da, otsailaren 22koa, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. Arau honen xedea da euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzionalak eta administratiboak arautzea Euskadiko toki entitateetan eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan.

Partaidetza izan du oinarri, bai diagnostikoa osatzeko, kontrasterako zein plan estrategikoa diseinatzeko. Alde batetik, Zumaiaiko Udaleko ordezkari tekniko eta politikoeekin, UEMArekin eta Larraina Euskara Elkartearekin talde eragilea osatu da, antolaketa, komunikazioa eta koordinazioa bideratzeko. Bestalde, kontrastea eta partaidetza prozesuak martxan jartzeko eztabaida taldeak osatu dira multzo hauetan banatuta:

1. Zumaiaiko udalerriko eragileak (elkarte, talde, ikastetxeak...)
 - 1.1. Hezkuntza eta familia esparrua.
 - 1.2. Kirola.
 - 1.3. Kultura eta herriko taldeak.
 - 1.4. Arlo sozioekonomikoa.
 - 1.5. Oikia auzoa.
2. Herritarrak, oro har.

Ahizeko aholkulariak arduratu dira prozesua dinamizatzeaz eta hortik eratorritako lan plangintza garatzeaz, betiere Zumaiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinatuta.

Datu bilketa:

Datu bilketa			
Data	Galdetegiak	Parte hartzea	
Irailak 10-30	- Zumaian euskararekin zer?	Euskaraz	95
		Ele bietan	188
		Guztira	283

Elkarrizketak	
Data	Elkarrizketatua
Iraila-urria	- 17 urteko gazte hegoamerikarra. - 50 urte inguruko herritarra. - Enpresa arloko pertsona. - Gaztea, Etxape zentroa. - Kirol arloko langilea. - Kultura arloko herritarra. - Malen etxeko kidea. - Merkataritza arloko pertsona. - Pentsioduna.

Kontrastea:

Datuak kontrastatzeko eta partaidetza sustatzeko arloz arloko eztabaida taldeak egin dira eragile eta herritarrekin.

Herritarren eta eragileen iritzia eta balorazioak jasotzeko eta plan berria diseinatzeko, esparruka aritu gara lanean. Hona hemen saioen laburpena eta taula:

Partaidetza prozesua			
Data	Lan mahaia	Parte hartzaile kopurua	
Urriak 15	Familia eta transmisioa	11	10 emakume, 1 gizon.
Urriak 17	Kirola	14	6 emakume, 8 gizon.
Urriak 28	Kultura	19	10 emakume, 9 gizon.
Urriak 30	Arlo sozioekonomikoa	9	6 emakume, 3 gizon.
Azaroak 12	Oikia auzoan	10	6 emakume, 4 gizon.
	GUZTIRA	63	



Hezkuntza lan mahaia (2024ko urria)

Plan estrategikoaren diseinua

Bestalde, plan estrategikoaren diseinurako, **herritarrekink lanketa zabala** egin da, hausnartzeko zein ideiak trukatzeko topaketa batean.

Data	Lan mahaia	Parte hartzaile kopurua	
Azaroak 21	Herri lanketa zabala	28	14 emakume, 14 gizon



Herri lanketa zabala (2024ko azaroak 23)

2.1 Lanketa berezia Zumaiako ikastetxeetan

Gazteen iritzia gertutik ezagutzeko lanketa berezia egin da Zumaiako Herri Eskolan eta Zumaiena Ikastetxean. Lanketaren xedea izan da euskararekiko duten iritzia gertutik ezagutzea. Horretarako, unitate didaktiko bat prestatu da, eta zentroetako irakasleei hura ezagutzeko trebakuntza ikastaroa eskaini zitzaion, online.

Guztira, DBH (3 eta 4. mailak) eta Batxilergoko lehen mailako 105 ikaslek parte hartu dute. Tartean badira, oso kopuru txikian bada ere, Aizarnazabal eta Getariako ikasleak, Zumaiara bertaratzen baitira ikasketak egitera.

4. DIAGNOSIA: NONDIK GATOZ?


4.1 Zenbat gara eta nolakoak gara Zumaian?¹

Zumaia Gipuzkoako ipar-mendebaldean dagoen udalerria da, eta Urola haranean kokatua dago, hain zuzen ere, Urola ibaia Zumaian itsasoratzen da. Herriaren azalera 11,2 km²-koa da eta 10.090 biztanle inguru ditu (2024-01-01).

Azken hamarkadan biztanleria areagotu egin da Zumaian, eta 10.000 biztanleko langa gainditu du. 2023ko datu ofizialen arabera (10.090 herritar). 2001etik aurrera, 1.600 biztanle baino gehiago irabazi ditu.


Egungo biztanleria datuen arabera, emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira; dena den, aldea ez da esanguratsua: 69 emakume gehiago dago gaur egun. Adinak aurrera egin ahala, desberdintasun hori nabarmendu egiten da; esaterako, 70 urtetik gorako 217 emakume gehiago dago gizon baino. Horrez gain, 45 urtetik gorako biztanle gehiago dago, 45 urtetik beherakoekin alderatuta. Zumaia 45-55 urte tartean dago.

Biztanleria datuen bilakaera (2001-2023)



¹ Datuak EUSTAT Euskadiko Datu Estatistikoaren Erakundearen bidez jaso ditugu.


2024ko biztanleria datuak adina eta sexuaren arabera



Biztanleria datuen bilakaera jatorriaren arabera (2001-2021)

Zumaiako biztanleriaren jatorriari erreparatuta, gora egin du atzerrian jaiotakoen kopuruak: 20 urtean % 6ko igoera egon da. Ordea, EAEtik kanpoko estatuko beste lurraldeetatik etorritakoak ia % 7 jaitsi dira. Bereziki esanguratsua da Euskal Herritik kanpoko biztanleriaren igoera. 2023ko datuen arabera, % 9 (907 herritar) etorri da.

Atzerritar horien jatorria, INEren azken datuen arabera (2021), Maroko, Nikaragua eta Errumania dira, hurrenez hurren.





4.2 Zein doinu dauka gure ahotsak?²

Euskararen ezagutza datuak

Datuek erakusten dutenez, euskararen ezagutza ez da ia aldatu azken 20 urteetan. Gaur gaurkoz, euskaldunek eta ia-euskaldunek zumaiarren % 86,6 osatzen dute. 2011ko inkesta soziolinguistikoaren arabera, ezagutzak beherakada txiki bat izan bazuen ere, hamar urtetan euskaldunen ehunekoak gora egin du berriro.

Ia-euskaldunen eta erdaldunen kopuruek gorabeherak izan dituzte; egun, ordea, kopuru berean daude.

Erdaldunen kopuruak, ordea, 1990eko hamarkadatik hona beheranzko joera du. Beheranzko handiena 1991tik 2001erako tartean izan zuen, ondoren apur bat igo da, baina ez du 1991ko kopurua berreskuratu.


2021eko ezagutzaren datuak zenbakitara eramanda, honako hau da banaketa: 7.269 euskaldun, 1.237 euskaldun hartzaile eta 1.314 erdaldun. Bereziki aipagarria da euskaldun kopuruaren hazkundera. Erdaldunen kopuruaren igoera migrazioaren eraginez izan daiteke.

	1991	2001	2011	2021
Euskaldunak	5.402	6.065	6.542	7.269
Euskaldun hartzaileak	1.092	1.197	1.446	1.237
Erdaldunak	1.466	1.032	1.156	1.314


² Ezagutza datuak (aitortuak) Euskal Estatistika Erakundetik (EUSTAT) hartu dira.



Bilakaera (2001-2021)



Egungo datuak (2021)



Lehen hizkuntza


Lehen hizkuntza haurrak hiru urte bete arte gurasoengandik edo berarekin bizi direnengandik eskuratutako hizkuntza edo hizkuntzak dira. 2021eko datuen arabera, Zumaian haurren erdiak baino gehixeagok (% 54,7) jasotzen du euskara bakarrik etxean, eta % 8,6k biak.

Hala ere, esanguratsua da euskara bakarrik jasotzen dutenen kopurua murrizten ari dela, zehazki, 5 puntu; ondorioz, baita euskaldun zaharren kopurua ere. Gaztelania bakarrik jaso dutenen kopurua, berriz, 3 puntu jaitsi da.

Datu horiek aztertzean, migrazio mugimenduei erreparatu behar zaie berriro. Izan ere, igoera bi hizkuntza edo beste bat jaso dutenek izan dute, launa puntu hurrenez hurren. Halaber, Zumaian gero eta haur gehiagok du atzerriko hizkuntza bat lehen hizkuntza. Datuek ez dute islatzen euskararen transmisioan hausturarik, baizik eta biztanleriaren aldaketa.

Lehen hizkuntzak lotura handia izan ohi du euskara gaitasun erlatiboarekin; hots, euskaraz ala erdaraz erosoago aritzearekin. Datu horietatik inferitu daiteke, beraz, ezagutzak gora egin duen arren, proportzioan ez dagoela erosoago euskaraz aritzen den euskaldun gehiago Zumaian, baizik eta erdaraz aiseago edo euskaraz bezain aise egiten duen gehiago.


Bilakaera (2001-2021)




Egungo datuak (2021)

Etxean erabiltzen den hizkuntza


Zumaian etxeetan erabiltzen diren hizkuntzei dagokienez, gehiago dira etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenak, erdara erabiltzen dutenak baino. Dena den, azken 20 urteetan 8,8 puntu jaitsi da kopuru hori. Etxean gaztelania erabiltzen dutenen herritarren kopurua ez da nabarmen jaitsi. Aldiz, 5 puntu egin du gora etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen kopuruak. Gainera, atzerriko hizkuntzaren erabilera handitu da azken urteetan, % 0,3 puntutik % 2,4ra.



Bilakaera (2001-2021)



Egungo datuak (2021)



Hizkuntzen kale erabilera datuak³

Aurreko datuen aldean, beste metodologia batekin lortzen da kaleko erabilera: behaketaren bidez. 1997az geroztik egiten dira neurketak, eta azkenak Soziolinguistika Klusterraren bidez egin dira. Beraz, metodologian soilik ez, unibertsoan ere badago aldea: zentsuek Zumaiako herritar guztiei buruzko datu estatistikoak ematen dituzte; kaleko neurketan, berriz, behatzen da zein den hizkuntzen erabilera Zumaiako kaleetan, kontuan hartu gabe hiztuna Zumaiako den ala ez —alegia, kalean ez dabiltzan zumaiarrak ez dira sartzen kaleko neurketan, eta bai zentsuan; aldi berean, Zumaiako kaleetan dabiltzan kanpotarrak badaude neurketan, eta ez zentsuan—.



Datuak erakusten dutenez, beheranzko joera du euskararen erabilera Zumaiako kaleetan azken 20 urteetan, nahiz eta ikus daitekeen bilakaera gorabeheratsua izan duela.

Datu horiek euskararen ezagutza datuekin konparatuz gero, aldea nabari da. Hau da, ondoriozta daiteke dakiten guztiek ez dutela beti euskaraz egiten haien artean. Horrez gain, atzeritik etorritakoen biztanle kopurua handitzen ari da, eta euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzak gehiago entzuten dira, nahiz eta ez den igoera bereziki handia.

Kale erabileraren neurketa iraila-urria artean egin zen. Zumaia herri turistikoa ere bada: litekeena da ezaugarri horrek ere eragina izatea gaztelania ez diren beste hizkuntzen igoeran, turisten joan-etorria ez baita udara bakarrik mugatzen.

Horrez gain, kale erabileran ez dago alde nabarmenik sexuaren arabera: % 50,8ko erabilera dute emakumeek; 50,9koa gizonezkoek.

³ Azterketa honetan 2021eko kale erabilera datuak hartu dira kontuan.

Bilakaera (2001-2021)**Egungo datuak (2021)****Hizkuntzen kale erabilera datuak adinaren arabera**


Erabilera datu orokor horien atzean, alde handia dago adinaren arabera. Norabidea argia da: zenbat eta gazteago, euskararen erabilera handiagoa. Hala, umeak aritzen dira gehien euskaraz Zumaia kaleetan (% 70,3); gero gazteak (% 66,6), helduak (% 36,2) eta adinekoak (% 30,3).

Erabilera joerei dagokienez, badira kontuan hartu beharreko bi faktore neurketa horretan. Batetik, umeen eragina: haiek egiten dute euskaraz gehien; gainera, haiek aurrean egoteak eragina du nagusien jardunean ere.




Bestalde, haurrak eta gazteak dira Zumaian, azken 10 urteetan behintzat, euskara gehien erabili dutenak; hain zuzen ere, adin tarte horietan % 70etik gorakoa da euskararen erabilera. Ordea, helduen eta adinekoen artean, % 50etik beherakoa da.

Bilakaera (2001-2021)



Egungo datuak (2021)



4.3. Oikiaren izaera eta doinuak


Biztanleria datuen bilakaera (2001-2023)

Biztanle gehienak Zumaiaiko erdigunean biltzen dira, baina Artadi, Narrondo eta Oikia auzoetan ere bizi da jendea. Dokumentuaren hasieran adierazi bezala, Oikia arnasgunea da. Horregatik, eta izaera berezia duen auzoa izaki, prozesu honetan lanketa berezia egin da han. Oikiaren ezaugarri nagusia bertako eskola da: auzoko umeek bertan ikasten dute 12 urte bete arte. Ondoren, Zumaia joateko joera dute.


Gainera, Oikian Artadi eta Narrondo auzoetan baino biztanle gehiago bizi da, guztira, 338 herritar. Azken 10 urteetan gorakada izan du, batez ere, 2011tik 2016rako tartean. Jatorriari dagokionez, % 8 atzerrian jaioa da.

Hortaz, esan daiteke, azken 20 urteetan, biztanleriak goranzko joera izan duela Oikian, eta atzeritik etorritako gero eta jende gehiago bizi dela.

Bilakaera (2011-2021)




Datuak jatorriaren arabera



Euskararen ezagutza datuen bilakaera Oikian.(2011-2021)

Oikiari dagokionez, euskaldunen ehunekoa nahiko egonkorra izan da azken 10 urteetan. Biztanleria igo da, eta horrek erdaldunen kopuruari eragin dio, batez ere 2016an. Dena den, azken urteetan mantendu egin da.




Etxean erabiltzen den hizkuntza

Oikiako datuei erreparatuta, euskarak etxeko erabileran jaitsiera nabarmena izan du. 10 urtean 11 puntu egin du behera. Euskara eta gaztelania biak erabiltzen dituzten oikiarrak, aldiz, nabarmen gehitu dira, zehazki, 6,7 puntu. Gaztelaniaren erabilerari ere goranzko joera hartu zaio. Horrez gain, 2011tik aurrera, etxean beste hizkuntza batzuk ere agertu dira, baina kopuru absolutuetan gutxi dira :6, 12 eta 11 herritar, hurrenez hurren.


Oikiaren herrigunean erabiltzen den hizkuntzaren erabilera daturik ez dago.

Bilakaera (2011-2021)





Egungo datuak (2021)




4.4. Beste ikerketa eta adierazle batzuk

Euskalduntzea: Zumaiaiko Igor euskaltegi (AEK) matrikulazio datuak

Helduen euskalduntzeari dagokionez, euskaltegi bat dago Zumaian: Igor AEK euskaltegia. Gutxi gorabehera, 60 bat ikasle izaten da bertan urtero euskara ikasten, hainbat mailatan banatuta. Aurrez aurreko taldeez gain, autoikaskuntza ereduaren ere ematen dira eskolak. Autoikaskuntza ereduaren bidez ikasleak lanaren zatirik handiena etxean egiten du, eta euskaltegian tutoretza zein mintza saioa izaten ditu.

Azken ikasturteetan, batez beste 7 talde osatu dira urtero, eta taldeko zortzi edo hamar ikasle aritu dira. Maila aldetik hasiera mailatik hasi (A0A0) eta goi mailara (C1) arteko ikasleak egon dira. Maila baxuko taldeak (A0, A1 edo A2) urtero eratu izan dira. Nabarmentzekoa da, bestalde, 2020tik aurrera C2 egiaztatzea lortzea helburu duen taldeak izan direla hiru ikasturtetan.



Datuak zehatzak taula honetan irakur daitezke:

Ikasturtea	Hasiera maila	Talde kopurua	Talde kopurua guztira
2021-22	A0A0	2	8
	A1A0	1	
	B1B1	1	
	B2B2	1	
	B1A2	1	
	B2B1	1	
	C1C1	1	
2022-23	A1A1	2	7
	B1B1	2	
	A2A2	1	
	C1C1	1	
	A0A0	1	
2023-24	A0A0	2	7
	A1A1	1	
	A2A2	1	
	B1B1	1	
	B2B2	1	
	C1C1	1	

Herrian bertan ikasten ari direnez gain, badira beste euskaltegi batzuetan ikasten ari diren zumaiaarrak ere. EAS edo Euskararen Adierazle Sistemaren arabera, 100 baino gehiago izan dira azken bi ikasturteotan.

ZUMAIA	2022/2023	2023/2024
Guztira	109	105
Gizonezkoa	30	39
Emakumezkoa	78	65
Ez-binarioa	1	1

Ikasleen jaioterriari buruzko datu orokorrak ere eskaintzen ditu EASek.

ZUMAIA	2022/2023	2023/2024
Guztira	105	109
EAE	67	67
Nafarroa	1	2
Iparraldea	0	0
Estatua	14	13
Atzerria	23	27

Euskaraldiko datuak

2018ko Euskaralditik hasita, aktiboki parte hartu dute zumaiarrek. Guztira, 1.500-2.000 herritarrek parte hartu dute. Beheko taulan ikus daitezke urtez urteko datuak:

EDIZIOA - URTEA	GUZTIRA	AHOBIZI	BELARRIPREST
1 - 2018	1.952	1.695	257
2 - 2020	1.560	1.407	153
3 - 2022	1.816	1.560	256

2022ko datuen arabera, ahobizi eta belarriprest rolak generoaren arabera antolatuta: 1.095 emakume, 711 gizon eta 10 ez-binario.

Datu hauen arabera esan daiteke, parte hartzea antzeko kopuruetan ibili dela lehenengo eta hirugarren edizioetan. Bigarrenengan, ordea, jaitsi egin zen, baina kontuan izan behar dugu 2020ko Euskaraldia pandemia betean izan zela, eta parte hartzea nabarmen jaitsi zela, orokorrean.

Entitateen parte hartzea sustatu da 2020tik aurrera. Horri lotutako datuak honakoak dira:

EDIZIOA - URTEA	ENTITATEAK	ARIGUNEAK
2 - 2020	119	250
3 - 2022	130	270

Azken bi edizioetan entitateek Ariguneak sortu ahal izan dituzte, hau da, entitateen euskaraz lasai aritzeko guneak, eta datuei erreparatuta Ariguneen izen ematea modu esanguratsuan igo da, baita izena eman duten entitateena ere.

Larrainaren ikerketa haurren euskarazko sozializazioaz

Larraina euskara elkarteak ikerketa sakon bat egin zuen 2021ean, bereziki HH5, LH4 eta LH6 mailetako neska-mutilen hizkuntza erabilera zuzenean behatuta eskola ingurunean. Ikerketa horren emaitzen laburpena *BAT* aldizkariaren 129. zenbakian argitaratu zuten Belen Urangak eta Ibon Manterolak.

Zumaiako eskoletako eremu ez formaletan euskararen erabilera zenbatekoa neurtu zuten; batetik, eta haur horiek eskolan, aisialdian eta etxean zenbat erabiltzen zuten galdetu zieten haurrei eta gurasoei inkesta bidez, bestetik.



2023an behaketa bidezko datuak berriz ere jaso zituen Larrainak, DBH2 mailakoak gehituta, eta horrek aukera eman zien bilakaerak aztertu eta ondorio batzuk baieztatzeko. Hauek dira ondorio nagusiak:

- Zumaiako haurrek euskara asko erabiltzen dute eskola eremuan. Datu orokorra % 75 ingurukoa da.
- Haurrik txikiak dira euskaraz gehien egiten dutenak, baina ezin da esan erabilera linealki jaisten denik. 2023ean errepikatu egin da LH4an jaitsi eta LH6an igotzeko joera.
- Neurketa batetik bestera LH6 mailako nesken erabilerak gora egin du eta mutilenak behera.
- DBH2ko nerabeen artean ere erabilera altua da, % 76 ingurukoa.
- Eskolak badu ahalmena haurrek euskaraz egin dezaten, eremu formalean euskararen nagusitasuna erabatekoa da.
- Eremu formaletik aldendu ahala, haurrek eta nerabeek gutxiago egiten dute euskaraz. Kirol entrenamenduetan euskararen erabilera nagusitzen da, baina dantzan/musikan eta liburuak irakurtzean gaztelania nagusitzen da LH6 mailatik aurrera. Interneten eta telesailetan ere euskarak toki oso txikia du.
- Etxeko erabilerak lotura du haurrek lagunekin kalean egiten dutenekin.

Oikian LH6ra bitarteko ikasketak eskaintzen dituzte, eta haur gutxi izaten direnez, joera handiagoa da maila bateko eta besteko haurrak nahasian ibiltzeko. Horregatik, mailak bereizi gabe egin dira han neurketa. Datuek adierazten dute ia erabat euskaraz aritzen direla Oikiako neska-mutilak, bi neurketetan % 90etik gorako erabilera jaso dutelako.

Ikerketaren oinarri sendoaz ohartzeko, adierazgarria da laginen kopuruak ikustea:

- 2021ean 12.462 haurren elkarrizketak behatu ziren.
- 2023an 9.905 haur eta nerabeen elkarrizketak aztertu ziren behaketa bidez



Iñaki Iurrebasoren tesia⁴, Zumaiara egokituta

Iñaki Iurrebaso Biteri UEMAko teknikari-ikerlariak ondu duen tesian arnasguneen garrantziaz dihardu, bestek bestek. Dokumentu honetara ekarri dira ikerlariaren zenbait ideia, Zumaiako euskararen egungo egoera testuinguruan jartzeko baliagarriak izan daitezkeelakoan.


Teknikari-ikerlariaren sailkapenaren arabera, Zumaiaiko euskara elebitasun egoera orekatuan dago. Ezaqutza % 60 baino handiagoa, eta erabilera % 50 baino handiagoa baita.

lurrebasoren iritziz, hizkuntza gaitasuna ahulgune nagusia da. Hortaz, euskal elebidunak indartzeari jotzea garrantzitsua da, hezkuntza (D ereduko ikastetxeak) zein helduen euskalduntzea. Tesiaren ondorioen arabera, gehiago eta errazago erabiltzeko, gaitasuna landu beharko litzateke. Hala ere, azken hamarkadetan transmisioak eta sozializazio prozesuek euskalduntzearen alde egin dute. Baina, gaitasun erlatiboa, erabilera eta ezagutza datuak gurutzatuta, eta urtez urteko bilakaera aztertu ondoren, indartsuagoa da erdalduntzea euskalduntzea baino.

Datuei dagokionez, arnasmuneetan bizi dira euskaldunen % 4,7; ingurune erdaldunean, berriz, % 89,4. Beraz, euskara sozialki nagusi den eremu geografikoa galtzen ari da. Arnasmuneak galtzeak oso egoera zailean jarriko luke euskararen aurrerabidea ikerlariaren aburuz.

Egoera iraultzeko erronkak azaleratu ditu lurrebasok. Hona hemen horietako batzuk:

- Euskara lehentasunera ekarri beharra dago, arlo pertsonalean, sozialean eta politikoan.
- Euskaltzaletasuna sendotzeko beharra.
- Erdara nagusi den eremuetan asmatu beharra. Bertako sektore euskaldunena zaindu.
- Arnasguneak sendotu, hedatu beharra.
- Zeharlerrotasunez lan egin behar da, politika integraletara jauzi egin behar: demografia, turismoa, hirigintza, ekonomia...
- Galdera berriak akuilatu, irudimenez jokatu.
- Aukera berriak bilatu, arriskatu, hanka sartu, ikasi eta probatu.




4. *Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak* qaratzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa. EHU, 2023.

Herritarrei osasun arreta

Osakidetzak herritarrei arreta zer hizkuntzatan nahi duten galdetzen die, eta hauek dira 2024ko urrian bildutako azken datuak:


Euskara	Gaztelania	Zehaztu gabe	Guztira
5.887	3.552	1.170	10.609

Hizkuntza hautatu dutenen artean, % 62,4k hautatu dute euskara, eta % 33,6k gaztelania.



Errenta aitortpena nola

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak harremanak euskaraz ala gaztelaniaz, nola nahi dituzten galdetzen die herritarrei, eta Udalak euskaraz egiteko kanpaina egiten du urtero, UEMArekin elkarlanean.



	2024an	2022an	2020an	2018an	2016an	2014an
Aitorpena egin zuten zumaiarrak	5.630	5.305	5.232	5.105	4.946	4.954
Foru Ogasunarekin harremanak euskaraz izan daitezela eskatu zutenak	1.801 (% 31,99)	1.597 (% 30,10)	1.475 (% 28,19)	1.296 (% 25,38)	1.212 (% 24,50)	1.000 (% 20,19)

Pixkanaka, baina urtez urte handitzen ari da euskarazko harremanak eskatzen dituzten zumaiarren ehunekoa.

Gazte zumaiarrak eta ikus-entzunezkoak

UEMAk ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketa bat egin zuen 2022an, 10-18 urte bitarteko neska-mutilek udalerrri euskaldunek nolako ohiturak zituzten jakiteko. Lehen Hezkuntzako 122 galdetegi bildu zituzten, eta DBH eta Batxilergoko 594.

Ikasleei ezaugarriei lotuta, datu interesgarri batzuk jaso ziren, **erraztasun erlatiboari** buruzkoak. Hau da, hiztunak zein hizkuntzatan egiten duen arrazen, zein zaion hizkuntza erosoagoa.

	Euskaraz errazago	Euskaraz edo gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz errazago
LH	53,3	33,6	13,1
BH	50,0	30,3	19,7

Beste taula batean ikasleen **ohiko erabilera** neurtu zen, 5 eremu kontuan hartuta.

	Etxean	Ikasgelan	Ikaskideak gelatik kanpo	Lagunak	Eskolaz kanpoko ekintzak
LH	70,1	84,6	79,3	77,7	79,1
BH	66,6	83,9	77,4	75,5	74,5

Sare sozialen bidezko harremanek gero eta garrantzi handiagoa dutenez, DBH eta Batxilergoko ikasleei galdetu zitzaien ea **txat bidez** zenbat aritzen ziren euskaraz ingurukoekin.

	Etxekoak	Ikaskideak	Lagunak
BH	65,9	79,2	73,3

Lehen Hezkuntzako ikasleei ere galdetu zitzaien txatari buruz, baina orokorrean, norekin bereizi gabe.

	Euskaraz	Euskaraz eta erdaraz	Gaztelaniaz	Beste hizkuntza bat	Txatean ez da ibiltzen
LH	61,5	15,6	7,4	0,0	15,6

Oro har, **telebista, plataformetako filmak, serieak eta sare sozialak** gehienbat gaztelaniaz kontsumitzen dituztela ondorioztatzen dute datuek, adinak gora egin ahala orduan eta gehiago.

4.5 Zein da herritarren iritzia?


Arestian aipatu bezala, herritarren iritzia jasotzeko bi bide erabili dira. Batetik, herritarren artean zabaldutako galdetegia eta, bestetik, egindako banakako elkarrizketak eta arloka antolatutako lan mahaiak.

4.5.1 Galdetegietako emaitzak

Galdetegiei dagokienez, 2024ko irailean galdetegi bat zabaldu zen herritarren artean, haien iritzia jasotzeko asmoz, bai indarrean egon den euskara planaren inguruan, bai aurrera begira egin nahi izan dituzten proposamenen inguruan.


Bi galdetegi zabaldu dira: bata, euskaraz; bestea ele bietan. Zumaiako Udalaren hizkuntza irizpideei jarraikiz. Guztira, 283 erantzun bildu dira. Euskarazko bertsioak 1.193 ikustaldi izan ditu, eta, 175 herritarrek hasi, eta 95ek amaitu dute. Ehunekoetan % 54,29 izan da. Ele bietan zabaldu zen galdetegiak, berriz, 1.029 ikustaldi izan ditu. 272 aldiz hasi dira erantzuten, baina 188k amaitu zuten erantzuten. Ehunekoetan % 69,12 herritarrek erantzun dute.

Horrez gain, esanguratsua da bete dutenen adina. Irakurketa hau egin da: ikasgela batean galdetegiaren sustapena egin, eta bertan landu da, nahiz eta ikastetxeetan berariazko lanketa egin den. Horrek emaitzak apur bat desitxuratzea ekarri du.



Galdetegiak zabalpen handia izan zuen herrian. Euskarazko galdetegia erantzun dutenen erdia 41-60 urte artekoak izan dira. Haien ondoren, 26-40 urte artekoen erantzunak jaso dira. 15-25 urte artekoen zein 61 urtetik gorakoen erantzunak nabarmen gutxiago izan dira. Azkenik, 15 urtetik beherakoek ia erantzunik ez da izan.

Ele bietan zabaldu zen galdetegian, berriz, erantzun gehienak 15 urtetik beherakoek izan dira; dena den, oso alde txikia zegoen horien eta 15-25 urte artekoen artean. Hurrengoak izan dira 41-60 urte artekoak. 26-40 urte arteko gutxi erantzun dute, eta nabarmen gutxiago 61 urtetik gorakoek.



Inkestaren lehen bi galderak orokorrak izan dira: euskararen sustapenean markatu beharreko lehentasunei buruz galdetu zaie zumaiei. Erantzun bat baino gehiago aukeratu behar izan dute.

1. Zure ustez, zein esparrutan eragin behar da lehentasunez?

Herritarren ustez, eta grafikoetan ikus daitekeenez, euskararen sustapena egiteko lehentasunezko esparrua familia da (260 erantzun), jarraian gazteak (251 erantzun), eta koxka bat beherago, aisialdia (213).


Datu soziolinguistikoei erreparatuz, lehen hizkuntza euskara dutenen kopurua jaisten ari da, eta etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen kopurua handitzen. Beraz, ondoriozta dezakegu datu soziolinguistikoek azaltzen dutena herritarren lehentasuna ere badela.

Horrez gain, gazteak eragiteko talde garrantzitsua dira. Hainbatek adierazi dute sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu behar dela, batez ere euskara ingurune informalean erabil dadin; aisialdian, kasu. Hala ere, aipatzekoa da haur eta gazteek darabiltela euskara gehien Zumaian, kale erabileraren neurketak erakutsi digunez.

Kirola, irakaskuntza, euskalduntzea, etorri berriak eta lan mundua esparruek 140-160 erantzun inguru jaso dituzte.



Lehentasun apalagoa eman diete beste gai batzuei, hala nola, ingurune digitalari, kulturari, merkataritzari/ostalaritzari eta administrazioari zein Udalari.



Aukera horiez gain, beste proposamen batzuk egin ahal izan zituzten, eta honako hauek nabarmendu dira:

- Merkataritza alorra aipatu da, eta hauxe nabarmendu da:
 - Kaleko dendei kartelak euskaraz jartzea erakargarria egin beharko litzaieke, baimena eskatzen dutenean proaktiboa izanez.
- Aisialdiari garrantzia edo lehentasuna emateaz gain, ñabardura hauek adierazi dira:
 - Hurrekin.
 - Lagunekin.
 - Eskola barruan, jolas orduan eta arratsaldeetan.
- Beste adin tarte batzuk ere lehenetsi dira, hala nola, aspaldi Zumaiara etorritako adineko pertsonak.
- Garrantzitsuena euskaldunen ahalduntzea. Euskaraz bizitzeko hautu eta oztopoen aurrera jarrera aktibo eta kontzientea zabaltzeko.
- Eragiteko beste esparru batzuk zaintza eta gizarte zerbitzuak izan dira.

Galdetegiko beste galderen erantzunen laburpena:

Aurreko plangintzaldiko ekintzak ebaluatu dira galdetegiaren bidez, herritarrek 1etik 4rako puntuazioa edo "ez dakit" erantzuteko aukera izan zuten. Horren emaitzen batez bestekoa dago taula honetan.

Ekintza		Bataz besteko puntuazioa	Ez dakit erantzun kopurua
Familia bidezko transmisioa:			
1	Egutegiak (HH osoan eta LH-4n banatzen dira) eta gurasoentzako hizkuntza argibideak.	3,14	% 24
2	Haurreskolekin eta gizarte zerbitzuekin egiten diren hitzaldiak eta Guraso Eskolak.	3,14	% 11,6
3	Ludotekaren bidez egindako irteerak.	3,12	% 31,6
4	Haur jaioberrientzako CDa, gutuna eta pegatina.	2,97	% 31
5	Guraso gazteen euskararekiko kontzientziazioa	3,07	% 26,9
Irakaskuntza:			
6	Soziolinguistika saioak ikastetxeetan	3,09	% 29,1
7	Literatura sustatzeko saioak.	3,04	% 21,8
Euskalduntze eta alfabetatzea:			
8	Euskara ikasteko dirulaguntzak.	3,33	% 20,1
9	Mintzalagun programa.	3,28	% 25
10	Haurrei eskainitako hizkuntza errefortzua.	3,32	% 26,8
Arlo sozioekonomikoa:			
11	Gidabaimena euskaraz egitasmoa.	3,13	% 27,8
12	Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak.	3,13	% 27,8
13	Hizkuntza baldintzak euskarazko zerbitzuak bermatzeko: TAO, hondartzetako kantineak, zahar egoitzako zein pilotalekuko taberna.	3,14	% 18,3
14	Eskatu / eskaini karteltxoak komertzioetan.	3,15	% 26,4
15	Ostalaritza eta zaintza arloko euskara ikastaroa.	3,14	% 24,6
16	'Bertatik bertara' eta 'Ongi etorri euskararen herrira' kanpainak.	3,24	% 35,2
17	Merkatari eta elkarteentzako itzulpen laburren zerbitzua	3,11	% 26,1
Aisia eta Kirola:			
18	Turistei zuzendutako 'Euskararen enigma' bisita gidatua	3,03	% 41,9



19	Zumaiako klub eta elkarteei euskara erabiltzeko baldintzak, dirulaguntzei lotuta.	3,16	% 23,2
20	Kiroldegiko ikastaroak euskaraz.	3,29	% 17,3
Kulturgintza:			
21	Julene Azpeitia ipuin lehiaketa.	3,23	% 26,4
22	Irakurle taldea biltzen da hilean behin.	3,17	% 26,8
23	Larraina euskara elkartearekin hitzarmena motibazio jarduerak antolatzeko: hitzaldi zikloa, lehiaketak, kultur ekintzak..	3,23	% 32
Administrazioa:			
24	Erabilera planak.	3,05	% 26,8
25	<i>Osasun arreta nik euskaraz</i> egitasmoa.	3,09	% 20,4
26	Errenta aitortpena euskaraz kanpaina.	3,10	% 19,7
27	Udalari aitortutako Bikain ziurtagiria.	3,11	% 39,1
28	Aldibereko itzulpen sistema (maleta bat).	3,04	% 40,5
29	Merkatari eta elkarteentzako itzulpen laburren zerbitzua.	3,11	% 26,1
30	Obra baimenetan seinaleak eta kartelak euskaraz bermatzeko konpromisoa.	3,04	% 17,3
Hedabideak:			
31	Euskarazko hedabideak sustatzeko hitzarmena.	3,19	% 22,5
Sentsibilizazioa eta motibazioa:			
32	Baleiken Zumaiako euskarazko hitzak.	3,43	% 11,3
33	Zumaiako toponimia: etxe zaharren izenak berreskuratu.	3,32	% 20,1
34	Etorri berrientzat harrera protokoloa.	3,23	% 27,1
35	Euskaraldia eta Korrika babestu eta bultzatzea.	3,43	% 12,3
36	Euskararen Historia Soziala ikerketa: hitanoa, toponimia, herriko hizkera.	3,33	% 27,5


Oro har, Udalaren ekintzak oso ondo baloratu dira, 3 puntutik gorako puntuazioa jaso baitute. Bereziki nabarmendu dira sentsibilizazioa eta motibazioa ataleko ekintzak, *Baleiken Zumaiako euskarazko hitzak* zein *Euskaraldia eta Korrika babestu eta bultzatzea*. Administrazioa ataleko *aldibereko itzulpen sistema (maleta bat)* ekintza ere ondo baloratu da.

Herritarrek ezagutzen ez dituzten ekintzak adierazteko "ez dakit" aukera hautatu ahal izan dute. *Aldibereko itzulpen sistema (maleta bat)* eta *Udalari aitortutako Bikain ziurtagiria* ekintza ezagutzen dituzte gutxien herritarrek. *'Bertatik bertara'* eta *'Ongi etorri euskararen herrira'* kanpainak ere ez dituzte askok ezagutzen.

Herritarrekin erabili den prozesuaren metodologia ez zenez gazteen iritzia jasotzeko egokia, Zumaiako Herri eskolan eta Zumaiena ikastetxean lanketa egin da, DBH 3. maila eta 1. batxilergoko ikasleekin, 15 eta 17 urteko ikasleekin. Adinera egokitutako lanketa egin da.

Saioa baino egun batzuk lehenago, honako dokumentazioa helarazi zitzaien: Karta metodologikoa, ikasleekin egin behar zuten azalpenarekin eta minutuz minutuko informazioarekin; ikasleen gustukoak eta ez-gustukoak definitzeko fitxa; galdetegia (paperezkoa zein online bertsioa) ikasleen iritzia jasotzeko; azalpen txostena, saioa eginez zer lortu nahi den azaltzen duena.

Hasteko, saio horretan ikasleei eskatu zitzaien esateko "Euskara eta Zumaia" edo "Zumaiako euskara" entzuten zutenean, zerekin lotzen zuten. Hauxe da jasotakoa:




Ondoren, lehiaketa egin zuten kahoot! aplikazioaren bidez. Zumaiaren inguruko datu soziolinguistikoak landu zituzten. Horrez gain, gustatzen zaiena eta gustatzen ez zaiena adierazi zituzten.




Azkenik, galdetegia bete zuten. Bertan ebaluatu zituzten euskara planaren ekintzak. Taula honetan dituzue ikusgai:

Gazteei zuzendutako ekintzak				
		Gustuko dut	Ezagutzen dut	Ez dut ezagutzen
1	'Zumaia ezagutzen' egitasmoa.	16	32	64
2	Soziolinguistika saioak ikastetxeetan.	16	42	51
3	Idazleak ikastetxeetan.	18	37	54
4	'Irakurle matte' irakurle taldea.	8	16	81
5	Korrika.	58	49	6
6	Euskaraldia.	46	58	9

Udalak antolatutako ekintzak, oro har, erakargarriak al dira?



Eskolaz kanpoko jardueren euskarazko eskaintza ona dela uste duzu?





4.5.3 Lan mahaietan eta elkarriketetan ateratako ideia nagusiak (AMIA):

Herritarren iritziak biltzen bukatzeko, taula honetan jaso dira elkarriketetan eta lan mahaietan azaldu diren ideia, iritzi eta ondorioak. Bereziki, Zumaian euskararen normalizaziorako dauden oztopo eta aldekoak buruz galdetu zitzaizen herritarrei bi dinamiketan, eta hortik ateratakoekin indargune/aukera eta ahulgune/mehatxuak banatzea hobetsi da.

INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULGUNEAK/MEHATXUAK
Ezagutza - Euskararen ezagutza maila altua dago Zumaian. - Familia euskaldun askok hizkuntzaren transmisio txukuna egiten dute. - Euskara ikasteko baliabide ugari daude. Erabilera - Euskara erabiltzen da Zumaian. - Haurrek eta gazteek euskara asko erabiltzen dute. - Espazio formalek kanpo euskaraz aritzeko aukera dago.	Ezagutza - Etorri berri gehiago, eta horiek gaitasun falta dute. - Euskara ikasteko beharrik ez da sentitzen. - Guraso batzuen ezagutza falta. Batzuetan, bi gurasoek ez dakite. - Heldu askok ezin dute ikasi, hainbat arrazoiengatik: lan ordutegi aldaketak, doakoa ez, lehentasuna ez... Erabilera - Euskal hiztunek erdal hiztunen aurrean men egiteko jarrera historikoa. - Erreferenteek euskara gutxi erabiltzen dute. - Lantegietan gaztelaniarako inertzia edo ohitura. - Helduen artean dagoen gaztelaniazko joera. - Euskaldun berriek eta etorritako gaztetxoek ez dute erabilerarako esparru informalik.

INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULGUNEAK/MEHATXUAK
Motibazioa/sentsibilizazioa - Herri euskalduna delako pertzepzioa. - Eragileek euskararekiko konpromisoa erakusten dute. - Euskararen sustapenerako ekintzak egiteko jarrera badago.	Motibazioa/sentsibilizazioa - Euskaraz jakin bai, baina hitz egin nahi ez. Ele bietan hitz egiten da askotan. - Euskararekiko atxikimendu, kontzientzia edo interes falta. - Euskararekiko kontzientzia asko aldatu da, batez ere gazte eta haurrei dagokienez. - Gatazkari beldurra. - Bezeroengana iristeko bi hizkuntzetan egiteak duen lana.

**Aisialdia:**

- Euskarazko kultur eta aisialdi eskaintza zabala dago.
- Udalak baliabideak ematen ditu. Adibidez, kirol elkarteentzat dirulaguntzak ematen dira euskara erabiltzeko irizpideekin.
- Aisialdia euskaraz izan dadin Udalak baliabideak ematen ditu.
- Udalekuak euskaraz dira.

Aisialdia:

- Kultur eta aisialdi eskaintza ez da erakargarria eta irisgarria denentzat.
- Kirolean boluntario asko dago, horiengan eragitea zailagoa da.
- Kultur kontsumoaren zati handia teknologia berrien bidez egiten da, gaztelaniaz edo ingelesez.
- Boluntario asko dagoenean exijentzia maila asko jaisten da.

INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULGUNEAK/MEHATXUAK
Euskararen espazioak • Babes soziala eta instituzionala du euskarak Zumaian. • Dantza eskola, bertso eskola... euskaraz egiten dira. • Euskararen sustapenerako babes soziala eta instituzionala badago Zumaian. • Euskarazko kalitatezko hedabidea dago: Baleike (orain ZumaiaGUKA). • Eragile sare zabala dago Zumaian, eta, oro har, euskaraz egiten dute lan. • Eskolen bidez transmisioa gauzatzen da. • Merkatariei balio erantsia ematen die euskarak.	Euskararen espazioak • Ikasketa espezifiko batzuk gaztelaniaz dira. • Sare sozialak eta ikus-entzunezkoak erdaraz izaten dira. • Kontzientzia ahula dago enpresa bateko jarduera sozioekonomikoak nolako inpaktua daukan hizkuntzaren erabileran eta prestigioan. • Erakunde publiko batzuek ez dute euskara lehentasuntzat hartzen. • Kirol prestakuntza, oro har, gaztelaniaz da, baita kanpoko heziketa ere. • Turismoak erdararen presentzia indartu du. • Teknologia berrietan euskarak presentzia txikiagoa. • Herrian sortzen diren dantza eta kirol esparru txikietan gaztelania da nagusi. • Tabernetan, maiz, gaztelania edo ingelesezko musika da nagusi.



5. ONDORIO NAGUSIAK

Jasotako informazio guztiari erreparatu ondoren, hainbat ondorio atera daitezke Zumaiaiko euskararen egungo egoeraren inguruan:

- Euskal gizarteak bi ezaugarri esanguratsu ditu, euskararen ezagutza eta erabilera eragina izan dezaketenak: batetik, **gero eta zaharragoa** da; eta bestetik, **atzerrian jaiotako gero eta jende gehiago** dago (Iturria: VII. Inkesta soziolinguistikoa). Zumaiaiko datuek ere gauza bera erakusten digute.
- Euskararen **ezagutza altua** dago Zumaian, EAEko batz bestekoa baino nabarmen altuagoa. VII. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAE % 36,2 da euskalduna; Zumaian, aldiz, % 74. Gainera, hori da herritarren pertzepzioa ere eta horrek hainbat arlo euskaldunak izatera eramaten du.

Euskaldun kopurua azken urteetan mantendu den arren, **erabilerak beheranzko joera** erakusten du; horrek esan nahi du euskaraz aritzeko ohitura gero eta gutxiago dagoela, eta lotura zuzena du hizkuntza batean edo bestean aritzeko daukaten erraztasunarekin. Horrekin batera, azken urteotan herrian bizi izan den **turismoaren gorakadak** gaztelaniaren eta beste hizkuntza batzuen presentzia handitzea ekarri du.

- Euskal Herritik kanpoko gero eta jende gehiago bizi da Zumaian, eta horien **euskalduntzeak eta integrazioak** kezka eragiten die herritarrei. Etorri berriei bideratutako aurreko plangintzaldiko ekintzak ongi baloratu dituzte, baina gehiago eragiteko beharra adierazi dute iritzia emateko aukera izan dutenetan.

Euskara ikasteko **baliabideak** zerikusia dute gaiarekin. Galdetegia gaztelaniaz erantzun dutenen ustez, baliabide gehiago eskaini behar dira euskara ikasteko; dena den, Udalak dirulaguntzak eskaintzen dizkie euskara ikasi nahi duten herritarrei. Jaso denez, herritarrei ez zaie informazio hori iristen. eta herritar oroengana nola iritsi hausnartu. Ikastaroen doakotasuna ere aipatu da hainbatetan.

- Familia eta etxeko esparruari erreparatuta, **euskararen transmisioa mantendu** egin da; hala eta guztiz ere, herritarrek kezka erakutsi dute gaiarekin. Izan ere, adinaren arabera erabilera datuek erakusten dute haur eta gazteak direla egun euskara gehien erabiltzen dutenak Zumaian; aldiz, helduen euskararen erabilera jaisten ari da urteek aurrera egin ahala.

Halaber, egun **guraso diren edo laster izan daitezkeen** artean eragiteko beharra adierazi dute herritar batzuek; helduen artean erabilera igotzeaz gain, euskararen transmisioa sustatuko duelakoan.

Oikia auzoari dagokionez, **neurri propioak** hartzeko beharra nabarmendu da. Izan ere, euskararen transmisioan beherakada izan denez, auzoan berariaz eragiteko beharra identifikatu da. Ildo horretatik, 2023an arnasmune izaera aitortu dio Zumaiaiko Udalak. Euskara berreskuratuko bada, eremuak eta espazio jakin batzuk nolabait **blindatzea** gako garrantzitsua izango da. Horregatik, **sentsibilizazioan** eragiteko ekintzak hobetzeko beharra adierazi da sarritan.



- Aisialdia izan da lan mahaietan eta elkarrizketetan behin eta berriz aipatu den gaia. Batetik, herritarren ustez, Zumaian **aisialdi eskaintza zabala** dago, batez ere, kirolari lotutakoa. Horregatik, **kirol elkarteak** euskararen erabileran giltzarri izan daitezkeela iritzi diote herritarrek. Hala ere, aukera horri zailtasuna ere ikusi diote, kirol munduan aritzen diren prestatzaile edota antolatzaile asko boluntarioak baitira.

Kultur eskaintzari dagokionez, gazteen egungo kontsumo eredutik urrun dagoela uste dute herritarrek; beraz, bertan eragin beharra dagoela uste dute. Horrez gain, zenbaiten ustez, ez da irisgarria familia guztientzat eta zaurgarrienak aisialdi eskaintza horretatik kanpo geratzen dira. Hala ere, egun aisialdirako egiten diren ekintzak positiboki baloratu dituzte; are gehiago, ezagunak dira herritar gehienentzat.

- Galdetegietan eta eztabaidarako espazioetan atera da **motibazio gutxiago** sentitzen dutela egungo zumaiaarrek euskaraz aritzeko; hain zuzen ere, ez dela euskaraz aritzeko beharrik sentitzen. Ondorioz, erabilera jaisten ari dela.

Illo beretik, euskara sustatzeko motibaziorik ere ez dagoela irizten diote; hau da, gaiarekiko **sentsibilizazio falta** dagoela, batez ere, gazteen artean. Izan ere, euskaraz aritzeko zailtasunik ez dute ikusten adin tarte horietan, eta ikasteko aukerak badituzte. Hala ere, kale erabilera neurketen arabera, gazteen artean elkarrizketen % 66,6 dira euskaraz; helduen artean, % 46,7koa da ehuneko hori. Alegia, txikiagoa da helduen erabilera.

- Zumaiaiko komertzioetan euskararen presentzia areagotzeko ekintzak egiten dira. Komertzioei begirakoak herritarrek ezagutzen dituzte, oro har, galdetegiaren emaitzen erakusten dutenez. Hala ere, lan mahaietan adierazi zenez, enpresak, oro har, ez dira jabetzen jarduera ekonomikoak euskaraz egiteak hizkuntzaren erabileran eta prestigioan duen inpaktu positiboaz. Horregatik, **arlo sozioekonomikoan ere sentsibilizazioan eragin beharra** dagoela nabarmendu da.
- Gobernantzari dagokionez, **Zumaiaiko Udalak euskararen aldeko konpromiso publiko sendoa izan** du beti, eta 20 urteko bidea egin du hizkuntza plangintzan. UEMAren aterkipean eta inguruko herriei batera, **udalerriko eragile zein elkarteekin lankidetzan** sustatu du euskararen normalizazioan urratsak egiteko, eta azpimarratzekoa da motibazioan eta ikerketan **Larraina euskara elkartearen ekarpena**. Herritarrek bereziki nabarmendu dute **ikastetxeek eragile aktibo** izateko beharra eta prestasuna.



Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA